

Akitania – Berria Euskadi Nafarroa 2019ko diru-laguntzen deialdia

Lehenengo saioa

2018ko ekainaren 29an Iruñan arkeztutako Euroeskualdearen plan estrategikoaren berrikuntzak (http://www.aquitaine-euskadi.eu/wp-content/uploads/2016/06/plan_eus.pdf) nabarmendu du garrantzitsua dela lankidetzaren proiektuak garatzea herritarren, eleaniztasunaren eta mugikortasunaren alorretan.

Diru-laguntza deialdiaren xedea, Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako Foru Erkidegoko eta Akitania Berria eskualdeko bazkideen artean proiektu komunak egitea da.

Deialdi honen zuzkidura osoa (450 000 €) LLETren 2019rako aurrekontuan sartzen da.

I. ESKURATZEKO BALDINTZAK

1.- Onargarritasuna

- 1.1) Proiektuek erakutsi beharko dute koherentzia mantentzen dutela Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdearen lehentasun estrategikoekin.
- 1.2) Proiektuek **LLET-a osatzen duten hiru eskualde bakoitzetik bazkide bat gutxienez** izan beharko dute. Pertsona **juridiko** publiko edo pribatuek aurkeztu eta eskualdearteko izaera sendoa dutela eta benetan lankidetzan jarduten dutela erakutsi beharko dute proiektuek. Ez dira onartuko eskualdeetan pertsona juridiko bakar batetik sortutako bazkideak dituzten proiektuak (erakunde nagusi bat eta bigarren mailako erakunde bat: sozietate-egoitza eta ordezkariak, enpresa eta filiala...).

1.3) Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdearen xedea da onuradunak txandakatzen direla eta lankidetzak berritu egiten direla bermatzea. Aurreko edizioetan aukeratutako hautagaiek proiektuak aurkezten badituzte, garbi erakutsi beharko dute proiektuak **izaera berritzailea** duela.

1.4) Proiektuek gainerako finantzaketa-iturriak aipatu beharko dituzte, bai eskatutakoak, bai lortutakoak.

2.- Proiektuen zer-nolakoa

Proiektuak honako gai hauetan **oinarrituko dira batez ere**:

- **Kultura, sorkuntza bultzatzeko babesa:**
 - o obrak sortzea eta zabaltzea Euroeskualdeko kultura eragileen artean,
 - o mugikortasuna eta artistentzako egonaldiak,
 - o industria kreatiboen esparruan kolaborazioak.

- **Hezkuntza – Gazteria – Herritartasuna:**
 - o gazteen eta euroeskualdeko ikastetxeen arteko mugikortasuna eta trukeak, batez ere euskara eremuan,
 - o Euroeskualdearen herritartasunaren garapena,
 - o Mugazgaindiko topaketa kultura baten garapena

- **Kirola:** aire librean kirola egitea eta tokiko kirolak, kirolaren eta Euroeskualdeko herritarren gizarte eta hezkuntza arloa garatzea (emakume-kirola, osasuna, etab.),

- **Eleaniztasuna:** Euroeskualdeko hizkuntzen (euskera – gaztelania – frantsesa – okzitania) erabiltzea eta menderatzea bultzatzea, Euroeskualdearen gunean hizkuntza trukeak sustatuz.

3.- Hautatzeko irizpideak

Proiektuek irizpide hauei jarraitu behar diete (20 puntu):

Proiektuaren kalitatea (bideragarritasun teknikoa eta finantzarioa, koherentzia deialdia eta Euroeskualdearen lehentasunekin, eredugarritasuna eta errepikagarritasuna, etab.)	6 puntu
Aktoreen jarduera	3 puntu
Originaltasuna, berritzaile mugazgaindiko eta euroeskualdeko izaera duen proiektua	5 puntu
Mugaz-gaindiko lankidetzaren balio erantsia eta inplikaturako eragileen lurralde-ordezkaritza	6 puntu

Honako alderdi hauek bermatzen dituzten proiektuak balioetsiko ditu gehien Euroeskualdeak:

- Aukera-berdintasuna,
- Lurralde-aniztasuna,
- Gazteak inplikatzea eta gizarteratzea,
- Kofinantzaketa (publikoa edo publiko-pribatua).

Euroeskualdea hautespenean arlo guztiak agertzeaz arduratuko da.

Sorkuntza eta zabalkuntza arloan positiboki balioetsiko dira gutxienez honako ezaugarri hauetakoren bat duten proiektuak:

- Lanbide-egiturak egotea (lanaldi osoko kontratupeko langile bat gutxienez),
- Sortutako artelanak edo kultura-objektuak hiru eskualdeetako bakoitzeko gazte sortzaileak balioesten ditu, eta **hiru** eskualdeetako bakoitzeko ikusleen artean hedatua izateko asmoa du,

- Sorlana gako izango da arte- eta/edo kultura-operadoreen jarduera-programan sortu edo hedatuko den urtean.

Sortzaile gazteak eta gazteen artean zabaltzea nabarmenduko da.

Hezkuntza-arloan, positiboki balioetsiko dira gutxienez ezaugarri hauetako bat duten proiektuak:

- Proiektua gauzatzeko, zenbait modalitate (diziplinen eta ekipamenduen zeharkakotasuna, lan komunak egitea, mugikortasuna, etab.) eta tresna pedagogikoak erabiltzea,
- Dimentsio linguistikoa (euskara, gaztelania, frantsesa, okzitanoa) ez dadila proiektuaren xede izan, hori gauzatzeko bitarteko baizik,
- Dimentsio tematikoak batzea,
- Lanbide gaitasun eta gaitasun linguistikoaren jabetzea,
- Proiektuaren garapena eta iraunkortasuna.

Hiru eskualdeetako prestakuntza-zentroen arteko lankidetzak nabarmenduko da

Gazteak eta herritartasuna dela eta, positiboki balioetsiko dira honako proiektu hauek: Euroeskualdeko herritartasuna bultzatzekoak (balio komunak identifikatzea, jardunbide egokiak trukatzeko) eta gazteentzako mugikortasuna.

Kirolaren esparruan, elkarre-dimentsio batek (gazte-elkarteak), kirol-elkarteek aurkeztutako proiektuak aukeratu ahal izango dira (Euroeskualdearen Plan estrategikoaren 1.3.1 ekintza).

Eleaniztasunaren alorrean, positiboki baloratuko dira honako proiektu hauek:

- hizkuntza helburu duten eskola trukerakoak, batez ere euskaraz hitz egiten den eremuetan (Euroeskualdearen Plan estrategikoaren 1.1.2. eta 1.1.3 ekintzak),
- hizkuntza trebetasunak eskuratzeko direnak lanbide baten aritzeko (turismoan, ostalaritzan, merkataritzan...) (turismo bulegoetako edo museoetako langileen trukeak, etab. Euroeskualdearen Plan estrategikoaren 1.1.4 ekintza).

Aitzitik, Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeak ez ditu finantzatuko honako hauek:

- Federatutako kirol-lehiaketak (zirkuitu ofizialak),
- Soilik xede turistikoa dituzten jarduerak,
- Pertsona fisiko batek gauzatutako proiektuak.

Deialdiak esku hartu ahal izango du hiru eskualdeetan bideratzen diren lurralde-politiketan txertatzen diren proiektuen alde.

Euroeskualdeak elkarrizketak antolatu ahalko ditu hautagaiekin informazio gehiago eskuratzeko.

4.- Espedienteak ematea

Lehen aipatutako baldintzak betetzen dituzten pertsonak haien espediente osoak aurkeztu beharko dituzte (atxiki behar diren dokumentu guztiekin batera) beranduenik ere **2019ko maiatzaren 6an, 12h-tan**.

Behin inprimaki elektronikoa betetakoan, fede ematen duen hartu-agiri bat jasoko dute posta elektronikoaren bidez.

Paperean aurkeztutako proiektuak ez dira onartuko.

Osatugabeko txostenen bat izanez gero, 7 eguneko epea izango da txostena osatzeko, jakinarazten denetik aurrera. Eskatutako dokumentazioa aipatutako epe horretan aurkeztu ezean, alde batera utziko da delako proiektua. **Proiektua kideek izenpetuta ez badago, ez da epe hori emango.**

5.- Aurkeztea

Inprimaki elektronikoa bakar baten bidez aurkeztuko dira proiektuak. **Euroeskualdeko hiru lan-hizkuntzetako** batean bete beharko da, eta zenbait eremu bete beharko dira (hitz-kopuru jakin bat izango dute gehienez):

- Bazkideen nortasuna,
- Proiektu-burua: proiektuaren kudeaketaren arduraduna; hark jasoko du diru-laguntza eta hark igorriko dio dagokion zatia kideei;
- Gauzatzeko egutegia,
- Proiektuaren kokapena,
- Proiektuaren kostua eta eskatzen den kopurua.

Izena emateko prozeduran, halaber, honako bi dokumentu hauek ere aurkeztu beharko dira:

- Proiektuari buruzko informazioa; **Euroeskualdeko hiru lan-hizkuntzetan (euskeraz, gazteleraz eta frantsesez) bete behar da**,
- Bazkideek izenpetutako konpromiso-egintza eta finantzaketa-plana.

Proiektua aukeratzen bada, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute bazkideek:

- Kontu-zenbakia (IBAN eta BIC - agiri ofiziala),
- Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean daudela dion ziurtagiria.

II. DIRU-LAGUNTZAK EMATEA

1.- Onuradunak

Honako onuradun hauek onartu ahal izango dira Akitania-Berria Euskadi Nafarroa diru-laguntza-deialdirako: pertsona juridikoak (publikoak zein pribatuak) eta pertsona fisikoak, eskualdearteko lankidetzeta-proiektuak gauzatzeko dituztenak beste pertsona juridiko batzuekin (publikoak zein pribatuak), Akitania Berriko eskualdean, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Erkidegoan finkatuta daudenak, eta Akitania-Berria Euskadi Nafarroa deialdiko diru-laguntza bat lortzeko eskaera aurkeztu dutenak.

Onuradunek, Akitania Berriko eskualdean, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Erkidegoan izan beharko dute egoitza soziala edo helbidea.

2.- Kasu bereziak

Deialdi honek ez ditu ordeztu nahi Akitania Berriko Eskualde Kontseiluak, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Foru Gobernuak haien esku-hartzeen esparruan eman ohi dituzten finantza-iturriak. Hala ere, Akitania-Berria Euskadi Nafarroa laguntzek kontuan hartu ahal izango dituzte lankidetzak-ekintza eskualde-artekoa izatearekin zuzenean lotuta dauden gastu batzuk. Proiektu batek deialdi honetako laguntza bat eta Akitania Berriko Eskualde Kontseiluen, Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Foru Gobernuaren, edo guztien, diru-laguntza bat jaso ahal izango ditu, ohiko laguntza-bitartekoekin, honako baldintza hauek betetzen badira:

- Diru-laguntza horien zenbatekoen baturak ez du gaindituko proiektuaren kostu osoaren %50,
- Proiektuaren zer-nolakoak, helburuak eta finantzaketa direla eta, arrazoizkoa izatea laguntzak metatzea.

Kultur ekoizpen proiektuen kasuan, gutxiengoen hizkuntzetako batean (euskaraz, okzitanieraz edo "poitevin-saintongeais"-en), finantzaketa publikoa %80raino iritsi daiteke eta autofinantzaketa gutxienez %20koa izan beharko da.

3.- Diru-laguntzen eta gastu onargarrien ehunekoak

Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeak deialdi honen esparruan ematen dituen diru-laguntzen gehieneko zenbatekoa proiektuaren kostu osoaren %50era hel daiteke. BEZik gabeko egiturei dagokienez, laguntza horien parte-hartzea kostu osoari aplikatuko zaio, BEZ barne, eta laguntza esleitu eta hiru urteko epean BEZaren zenbateko hori ez berreskuratzeko konpromisoa hartuko du onuradunak. Kostu osoa kalkulatzeko, proiektu komuna gauzatzean bazkide guztiei sortutako gastu guztiak hartuko dira kontuan, eta bazkideek nahitaez justifikatu beharko dituzte proiektua egiteko erabilitako finantza-ekarpenak (***autofinantzaketa edo beste kofinantzaketa publiko edo pribatu batzuk***).

Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdearen Lantalde Eragileak, LLETren estatutuei jarraikiz, finantzaketa-ehunekoak modulatzeko eskubidea izango du, **bereziki finantzaketa publikoak parte hartzen badu**, bai eta proiektuari lotuta **onargarriak diren gastuen oinarria finkatzeko eskubidea ere**, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Proiektuaren autofinantzaketa gutxienez 20%koa izan behar da.

4.- Erabakia

Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdearen funtzionamendu-arauen arabera, Lantalde Eragileak hartuko du diru-laguntza emateko erabakia espedienteak bideratzeaz arduratzen diren batzorde tekniko mistoei kontsulta egin ondoren. Eskatzaileei jakinarazpen ofizialaren bidez emango zaie erabakiaren berri.

Euroeskualdeak gaien arteko oreka bermatuko du espedienteen aukeraketa garaian. Aukeraketa egingo da instrukzio-prozeduraren ondoren lortutako kalifikazioa kontuan hartuta.

Euroeskualdeko Batzorde Betearazleak proiektuen aurrekontuak doitzeko aukera gordetzen du, Proiektu deialdiaren aurrekontu totalarekin bat datozenak, betiere bere bideragarritasuna eta exekuzioa mantenduz:

- 10.000 € baino gutxiagoko zerga guztiak barne aurrekontuko laguntzei, % 6a arte murriztu daiteke.
- 10.000 € eta 20.000 € arteko zerga guztiak barne aurrekontuko laguntzei, % 8ra arte murriztu daiteke.
- 20.000 eta 40.000 euro arteko zerga guztiak barne aurrekontuko laguntzei, % 10era arte murriztu daiteke.
- 40.000 € baino gehiagoko zerga guztiak barne aurrekontuko laguntzei, % 12ra arte murriztu daiteke.

III. PROIEKTUAK GAUZATZEA

1.- Gauzatzeko epea

12 hilabete iraungo dute gehienez (erabakia jakinazi egunetik).

Hautaketa egiterakoan, amaituta dauden proiektuak ez dira kontuan hartuko.

2.- Finantza-xedapenak:

2.1) Emandako diru-laguntzak Akitania-Berria Euskadi Nafarroa deialdiko diru-laguntza gisa esleitzen dira. Bazkideen artean banatuko dira LLETren Lantalde Eragileak onartutako eragiketaren finantzaketa-plan orokorraren arabera; hain zuzen ere, plan hori da laguntza esleitzeko hitzarmenaren xede.

2.2) Onuradunei helaraziko zaien hitzarmenean jasotako baldintzen arabera ordainduko dira diru-laguntzak (bi momentutan: 1. ordainketa hitzarmena sinatzean eta 2. ordainketa behin proiektua amaituta eta ordaindu-agiri guztiak bidalita) eta ordainketak arrazoitutako benetako gastuen arabera izango dira, eragiketaren zer-nolakoa eta aurreikusitako kostu osoa errespetatuko dituzte, bazkideka, eta proiektuen lehiaketarako emandako espedientean aurkeztuta dauden bezala egingo dira.

3.- Jarraipena, ebaluazioa eta kontrola

3.1) Hitzarmenean zerrendatutako ziurtagiri guztiak aurkeztu beharko dituzte emandako diru-laguntzen onuradunek, eta, bereziki, gauzatze-txostena; bertan, gastuak eta sarrerak zehaztuko dituzte, bai eta proiektuaren bilakaera deskribatzen duen laburpen bat ere.

3.2) Programatutako ekintzetan eragin nabaria duen gertaeraren bat sortzen bada, horren berri eman beharko zaio berehala Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeari.

3.3) Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeak emandako diru-kopuruen esleipena eta erabilpena kontrolatu ahal izango ditu dauzkan bitarteko guztiak erabiliz. Onuradunek ezin izango diete kontrol horiei uko egin. Onuradunek ez badituzte betetzen lehen azaldutako betebeharrak, diru-laguntza eten edo kendu egingo da, eta kobratutako zenbatekoak Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeari itzuli beharko zaizkio; bestalde, euroeskualdeak haren esku dauden beste bitarteko batzuk ere aplikatu ditzake.

4. Publizitatea

Onuradunek ongi ikusteko moduan adierazi beharko dute sustapen- eta informazio-dokumentu guztietan proiektuak Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdearen deialdi honetako diru-laguntza jaso duela.

Ez badute publizitate-betebehar hori betetzen, diru-laguntza bertan behera geratu ahal izango da, edo itzuli egin beharko dute.